

...eta

Kitto!

823 zkia.
2012-X-31



JAVIER GOROSABEL
ASTROFISIKOA

Izarrak irakurtzen



Bidebarrieta, 2
Tel: 943 30 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
Lehena zerbitzu optikoetan




RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

• **Iribarreetan adituak**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com



Debabarrena !

Ekinean Emprende

Negozio-idea baten bila zabilta?

Zure enpresa propioa sortu nahi duzu?

Gustatuko litzaizuke enpresa bat elkarlanean
eratzea?

Ez egin zalantzarik **EKIN!!!**
Debabarrenean

EKITEN LAGUNDU

Ekintzeileen arteko harremanak indartzeko jarduerak asatutako helburu-duen programa

TALER TRINKOAK

Nori zuzenduta? Gaitasun ekintzeileen dutenel

Datak eta ordutegia: Azaroak 6, 7, 8, 13, 14 eta 15. 09:00etatik 13:00etara

Tokia: Debagoia, Eibar. Azalain 3 bis

PLAZA MUOATUAK!!! Enen izena DOAN. Bidali zure datuak ekintzeileen@debagoia.com helbidera edo deitu **943 820 110** telefonora

EUSKADI EMPRENDE



AZAROA						
A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

ASTEAN ESANAK

"Gaietik 30 kilo kendu banitu lez sentitzen naiz txirindularitza lagata. Irabazi ditudan lasterketa denek baino oihartzun handiagoa izan du nire agurrerako prentsurrekoak"
(ENERITZ ITURRIAGA, TXIRRINDULARIA)

"Andrek ia XVIII. mendera arte jantzi zuten buruko tontorduna eta monarkiaren eta elizaren legeen kontra eutsi zioten ohitura horri. Gure tontorrek metro asko zituzten eta baserri guztietan egiten zituzten"
(AMAIA MUJICA, MUSEOLOGOA)

"Ez dakit bost urte barru liburutegi publikorik geratuko den. Hala ere, liburutegi fisikorik egon ez arren, liburuzainak izan beharko ditugu, haien ezagutza behar izango dugulako kulturagune horretan"
(NIEVES GONZÁLEZ, LIBURUZAINA)

"Egun Gipuzkoan urtean 650.000 metro kubiko pinudi bota litezke, baina 200.000 botatzen dira bakarrik. Zulotik ateratzeko, ea gure arkitektoak eta ingeniariak pinu-egur gehiago erabiltzera animatzen diren"
(FERNANDO OTAZUA, BASO-JABEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

IXILLEKUAK ERABILLI.- Isilmandatuetan jardun. "Bixen artian, ixillekuak darabixez".

IXILLEKUETAN.- Isilean, ezkutuan. Pluralian erabiltzen da. "Bixen artian, ixillekuak darabixez".

IXILLEKUETAN ESAN.- Belarrira esan. "Halakoren batian, deitzen detsa kanpoko lagunari, ixillekuetan".

eskutitzak

ESCUADERIA EIBAR-TIK ESKERRAK EMANEZ

Egun gogorra izan zen benetan zapatukoa eguraldiari dagokionez eta, urari eta hotzari aurre eginez, II. El Corte Inglés - Eibar Rallysprintean eskuzabal-tasunez guri laguntzen jardun zuten guztiei eskerrak eman nahi genieke, ez zen-eta samurra izan egin beharreko guztia.

Guretzat harro egoteko modukoa izan zen Euskal Txapelketarako baliagarria den proba hau aurrera ateratzea, jakinda babesleak jausten doazela gutxina eta erakundeetako diru-laguntzak ere behera egiten dutela geratu barik. Hori guztiori gutxi balitz, lasterketak espero baino zailtasun gehiago izan zituena, irteeratik hiru kilometrorra lehenengo autoak istripu gogorra izan zuenean, arratsalde osoko jarduna 45 minututan atzeratzea ekarriko zuena.

Babesleei ere, mila esker: hasi handienetik eta txikieneraino. Eta baita Eibarko Udalari, eskainitako laguntzarengatik. Aldi berean, barkamena eskatu nahi diegu arazoak sortu dizkiegun guztiei. Hurrengo edizioan ikusiko garelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

ESCUADERIA EIBAR

P.D. Honako hauek izan ziren zenbaki sarituak zapatuan jokaturako II. Rallysprintean: 00652 (Kantoiko gasolindegian), 02068 (Azitaingoan), 00725 (Hambreakoan) eta 00748 (Amañakoan). Irabazleek 50 euroko erregaia hartu ahal izango dute egokitu zaien gasolindegian.



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.
PUBUZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnak:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

kutxa gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

autuan

KALIDIAREN ASTIA

XVIII. Kalidadiaren Europako Astiaren harira "Eibarko bikaintasuna, Bilboko inbidia" jardunaldia hartuko dau Armerixa Eskolaiak azaruaren 7xan, 18.00etatik aurrera. Hizlarixak Esther Gisasola (Sosola Nekazalaturismua), Iñaki Osoro (Klub Deportibua), Ainhoa Argarate (Goritz industria hornikuntzak) eta Manolo Iraola-goitia (Microdeco) izango dira eta Juan nahi dabenak 943203146 telefonora deittu edo aaa@armeriaeskola.com helbidera idatzi leike.

1937-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuak azaruaren 16xan alkartuko dira euren jaixaren 75. urteurrenaren: 11.45etan Untzagan bakotxari zapi bana emon eta 12.00xetan taldiaren erretratua etarako dabe; 12.45etan luntxa eukiko dabe Peña Txinberan eta 13.30xetan hasiko daben poteua amaittuta, 15.00etan Unzaga Plaza hotelera juango dira bazkaltzera. Bazkalostian dantzaldia eukiko dabe. Juan nahi dabenak Kutxako 2101 0035 170128382314 kontuan 50 euro sartu biharko ditte, ingresua egittian izen-abizenak emonda.

Lan Onari sarixa Armerixarentzat

Patxi López jarduneko lehendakariak Lan Onari sarixa emon zetsan urriaren 25ian José Luis Novoa Armerixa Eskolako zuzendariari. Lehendakariak hartu eban ekitaldixa Euskadiren Egunaren harira antolatu eban Eusko Jaurlaritzak eta sarixa emotian "jarduera profesionalian euren dedikaziño, konstantzia eta ekintzailetasunarengaittik bereziki nabarmendu direneri" egindako biharraren garrantzixa aitortu nahi detse.



Hauteskunde-alearen inguruan

Ohikuari jarraituta, aurreko domekan ...eta kitto! Euskara Elkarteak #u21 hauteskundieri errepasua egin zetsen goizez eta arratsaldez. Facebook eta Twitter-en jarritako mezuetan ez zan akatsik egon, baiña arazua izan genduan astelehenian paperian kaleratutako gabeko baloraziñuetan: Ezker Anitzako Eli Gomezek egindako baloraziñua eta Ezker Batuako Juan Gomezek egindakua nahastu egin genduazen, testuak tokiz aldatuta. Honek dira, orduan, baloraziño zuzenak:

Eli Gomez (Ezker Anitza-Izquierda Unida): *Emaitzak oso txarrak dira, ez dugu ordezkariarik lortu. Bi gertaera azpimarratuko nituzke. Komunikabideen aldetik eta, batez ere, euskal telebista publikotik jaso dugun zentsura eta boikota. Ez di-*

gute eztabaidetan parte hartzen utzi. Ezker Batuaren banaketak ere kalte handia egin digu. Eibarren eutsi egin diogu eta horrek ilusio handia egiten digu. Eskerrak eman nahi dizkiegu botoa eman diguten guztiei.

Juan Gomez (Ezker Batua): *Gizarte esku-bideen, benetako demokraziaren eta hazkunde jasangarriaren alde borrokatzen dutenen banaketak eta indefinizioak jendea eta herriak babesgabe eta argumenturik gabe uzten ditu. Ustezko aurrerakoi hauek itun konstituzional legitimoagoa nahi dutela diotenean, egoera oso modu arriskutsuan ari dira manipulatzten. Egungo egoera ez da ona, nahiz eta batzuek euren burua zoriontzten jardun.*

EGOITZA NAGUSIA
Bilboko 20 - beheko, eskumera

MUGICA FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba
Tanatorio eta Erreusketako lekuak
Egokien (lignu poligonian)
Aurkilar: maitu eta desagur anezko zerbizak
Kiook - Eskola - Utzamanako eskola
Euskal Herri osoko ospitaleen hertan 24 ordu
Nazio eta Nazioarteko traladok

Mugica Erorketa
Erorketa 1434

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

SALGAI DUZU

UDAL EUSKALTEGIA
AEK Euskaltegia
ISASI okindegia
ZABALETA okindegia
UNTZAGA prentsa
URKIZU prentsa
KULTU taberna
MUJKA harategia

VALENCIAGA jantzidenda
IZADI loradenda
ZUBI-GAIN kafetegia
SAN ANDRES gozotegia
DIBUTEK fotokopiadenda
BOLINTXO okindegia
BANKOA
...ETA KITTO!

35.176
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 19an GABON-OTARRA zozketatuko da

Zergak %2'4 gora

Udalbatzak udal tasak KPlari jarraituta (%2'4) igotzia erabagi dau. Salbuespena Kirol Patronatoko tasak izango dira: horrek %10 igoko dittue, "Kirol Patronatuaren instalaziñuak hobetzeko gastuak eragin dabeneko". Bestalde, Gipuzkoako udalerrixetako askoren adibidiari jarraituta, erabilli bariko etxieri (bertan iñor erroldatuta ez dakeneri) Ondasun Higieziñen Gaiñeko Zergan (IBI delakuan) %50eko igoeria aplikauko detse.

Pleno berian Eibarko Hirigintza Plan Nagusixan kanbixu batzuk egittia be onartu eben: Otaolan ospitala jasotzeko biharrezkua dan lurzoruaren gaiñeko behin-betiko aldaketari baietza emon detse eta, horrekin batera, Estaziño, Pagaegi eta Ibargain kaliak osatzen dabene etxadixa birrantolatzia



erabagi dabe, holan Estaziño kaleko atzealdian kale horrekin paralelo juango dan bidia egitteko. Bide barrixak Estaziño kaliaren hasieria Pagaegi kaliarekin lotuko dau (Blas Etxeberría kaliaren parian) eta, horri esker, bariantetik urtendako ibilgailluak hortik sarrera zuzena eukiko dabe eta, gaiñera, Estaziño kalia trafikuari itxi eta bakarrik oiñezkuek erabiltzeko aukeria emongo dau.



Gorka Errasti

Txartel gorria

Azken boladan, zurrumurru asko entzuten dira etorkinen gainean: krisi garai honetan mailu baten antzera talkaka ari direnak tabernetan, plazan, kuadriletan, interneten eta, tamalez, zenbait komunikabideen albistean eta diskurtso politikoetan. Ez dituzte funtsezko oinarriak eta datuekin desmontatu daitezkeenak dira asko, baina oso indar handiarekin sartzen dira buruan, arrazonamenduarekin baino gehiago bihotza eta pertzepzioarekin jokatzen dutelako. Baina, zurrumurru horiek hedatzeko erreparorik ez dituzten horietatik, zenbatek egin ote dute datu horiek konprobatzeko ahalegina? Zeintzuk joan dira iturrira, egia den edo ez jakiteko? El Roto ilustratzaile handiak badauka asko gustatu zitzaidan bineta bat gai horren inguruan. Bertan, belarrietako tapoiak daramatzen gizon batek honela dio: "Entzueraz gorrotatzen dut". Eta ez zaio arrazoirik falta.

Hemen nator ni txartel gorria ateratzera. David Goliathen kontra sentiarazten nauen lana da; baina bada, ordea, zenbait gauza entzuterakoan gure belarrietan mina sentitzeko garaia. Ezin da guztia baimendu: asko dira zurrumuruak hedatzen dituztenak, baina beste asko gara kontra gaudenak eta etorkina herriko beste bat bezala ikusten dugunak. Oraina anitza da eta aniztasunak onura eta aberastasun asko dakartza. Gainera, mundu guztian errepikatzen den fenomeno da: bai migratzeak bai immigrazioak pegatuta dakartzaten zurrumuruak. Horiek, bai Eibarren bai Londresen, berdinak dira. Ordua da denen artean aniztasunean elkarbizitza harmonikoa lortzeko lanean hazteko, beranduegi izan baino lehen. Edo, okerrago, etorkina etsaitzat hartzea normala bihurtu aurretik.

Kanposantua 08.00etatik 20.00etara zabalik




Domu Santu eguna dala eta, kanposantua ordutegi berezixan zabalduko dabe, atzotik bertatik hasitta: bixar, eguenian eta barixakuan, 08.00etatik 20.00etara egongo da zabalik. Horrez gaiñ eta ohikuari jarraituta, azaruaren 2xan 11.00etan mezia egingo dabe kanposantuko kaperan.

600 lagun batu ziran autonomixen topaketan

Euskadiren Egunaren harira, aurreko zapa-tuan Autonomia-Federaziñuen Kultur Alkartien II. Topaketa hartu eban Ipurua kiroldexigak. EAEn daguezen Galizia, Andaluzia eta Extremadurako kultur alkartien federaziñuak antolatutako jardunaldixak bigarren ediziñua bete dau aurten eta, bestiak beste, hiru

autonomia erkidego hórretako musika eta dantzekin zuzenian gozatzeko aukeria izan eben ki-



roldegixan batutako guztiak. Topaketiak 42 alkartetako ordezkariak Eibarrera iño ekarri zittuan eta kiroldexigax bertan egindako bazkarixan 600 bat lagun alkartu ziralá emon dabe aditzera antolatzailliak.



asteko
32.000
datua

kilo konpost batu dittue
estrenau barri dittugun
kontenedore marroietan.

Otsaillian Eibar eta
Elgoibarren proba modura
ipifittakuetan hillero batatz
beste 13.133 kilo batu
dittue. Eibarren herritar
guztien %24'80k emon dabe
izena 5. kontenedorerako.



Txema Cornago hil da

Jose M^a (Txema) Cornago García, Eibarko Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentruko zuzendarixa eta Antzerki Jardunaldixetako antolatzaillietako bat urriaren 25ian hil zan 62 urterekin, gaixotasun baten ondorioz. Bere heriotzak Eibarko zein Eibartik kanpoko jende morduaren erreakziñuak eragin zittuan jakin zan bezain pronto, oso pertsona ezaguna zelako. Goian bego.

Eibarko 46 odol-emotaileri omenaldixa

Aurreko domekan Elgetan, urteko batzarrian, Odol Emaillien alkartekuak hainbat laguni omenaldixa egin zetsen, urtietan odola emon dabela moduren batian eskertzeko. Omenduen artian erretratuko eibarrak, damera 46 egon ziran: 2011n 25 donaziñotara aillegatziagaittik Aitor Aizpun, M^a Mercedes Aja, Antton Aldalur, Javier Aldai, M^a Teresa Etxeberria, Jon Egiguren, Iker Etxeberria, Arantza Garitagoitia, Juan José Garmendia, Eduardo Gómez, Amagoia Gómez, Mila Ibarluzea, Aitor Iriondo, M^a Jesús Larrañaga, J. Francisco Larreategi, Sotero Larruskain, Igor Maiztegi, Begoña Mitxelena, Eugenio Murgoitio, Amaia Palacios, Tomás Pérez, Ana Pinto, Angel Manuel Ruiz, Elisabet Urdanpilleta eta Oskar Urkia; 40 donaziñuetara aillegatziagaittik M^a Dolores Alonso,



Rosa Aranberri, M^a Jesús Arizaga, Ana Castro, Begoña Etxebarria, Elena Ojanguren eta Cristina Telleria; 50 donaziñuetara aillegatziagaittik, Ignazio Abanzabalegi, Angel M^a Arranz, Amadedo Bilbao, José Manuel Cagigas, José M^a de los Mozos, Rufino Iparragirre, Antonio Larrañaga, Julio Mugika, Gorka Osoro, Juan Carlos Santos eta Juan Luis Toledo; eta "donante haundixak" izatiagaittik, Emilia Artamendi, Aitor Irure eta José M^a Lupeña (azken horrek 104 donaziño egin dittu).

Maridaje Jardunaldixak Krabeliñen barixakuero

Arrateko Krabelin jatetxiak 9. Maridaje Jardunaldixak antolatatu dittu. Ehiza eta arduak bat egitteko afarixetan izena emon nahi dabena 943202727 telefono zenbakira deittuta erreserba egitteko aukeria dauka. Afarixak azaroko barixakuetan izango dira, 21.30xetan eta 56 euro (BEZ barne) balixo dabe (San Andres egunekuak 48 euro). Preziuaren barruan Arratera jua eta Eibarrera bueltatzeko autobusa sartzen da (urteeria Ego-Gaiñetik 21.00etan eta bueltakua 01.30xetan). Lehe-

lengo jardunaldixa datorren astian, azaruaren 9xan 21.30etan izango da, Vintae ardandegiko ardauekin eta Raul Acha enologuaren azalpenak lagunduta; azaruaren 16xan Cune ardandegixaren txandia izango da (Maria Larrea enologuarekin); azaruaren 23an Viñas Valsanzo-rena (Javier Rodríguez enologuarekin); eta San Andres eguneko afarirako (azaruaren 30erako) Bodegas Campillo aukeratu dabe (Alberto Roth merkatal zuzendarixak gidatuta).

Alfako bihargiñak protestan

Aurreko astian, urriaren 25ian, 2.000 bat lagunek Alfa ez itxeko eskatu eben Untzagatik abiatu zan manifestaziñuan. Alfa Eibar-ko enpresa komitekuak oin momentuan bizitzen diharduen egoeriaren barri be emon eben: "Alfa taldeko zuzendaritzak merkataritza epaitegixan Hartze-



kodunen Lehiaketarako eskaeria aurkeztu dau, enpresa komitekueri agiririk entregau barik. Gezur, promesa faltsu eta negoziaziñoz betetako urtia pasau eta gero, bihargiñak enpresen itxierarantz eta lanpostuen suntsiketarantz goiaz, eurak bultzatuta". Arazuak 650 bat bihargiñeri eragiten detse eta, etorkizuna argittu bittartian, egunero elkarretaratzia egitten dihardue Alfa parian, 13.30xetatik 14.30xetara.



JAVIER GOROSABEL (astrofisikua)

“Zerura begiratzia gustatzen jata, baiña oiñak lurrian eukitta”

Egunotan herrixan bisittan euki dogu Granadan bizi dan ikerlarixa eta, oin dala urte bi moduan, oinguan be lkasten alkartekuak antolatuta hitzaldixa emon dau. Gorosabelen ibilbidia txapela kentzeko modokua da: Amsterdamgo Unibersidadia, Berkeleykua, Harvard, Alemaniako Max Planck institutua, Txileko Obserbatorixo Astronomiko Australa, Milanekua, Tautenburg-ekua, Edinburgoko Astronomia Zentrua... 160 artikulotik gora idatzi dittu eta bere ikerketak 6.200 aittamen baiño gehixago pillatzen dittue.

- Zelakua da astrofisiko baten biharra?

Zeruan daguazten astruak begiratzten dittugu, bertatik informaziñua batzeko eta, ondoren, fisika eta matematikako formula diferentiak erabillitta, gure kalkuluak etara eta zeruan zer dagan esateko.

- Eta zelan pentsau zenduan hau ikasi eta honetara dedi-katzia?

Umetatik euki dot zeruan ikusten diran izarrerri-eta begiratzeko zaletasuna. Ahal neban guztietan, teleskopixo txiki bat beso azpitan hartuta Elgetako bidera juaten nintzan izarrerri begiratzeko.

- Ikerketara dedi-katzen dan zentruan diharduzu, baiña zelakua da zure eguneroko biharra?

Ba zoritxarrez gero eta pa-peleo gehixago egittia tokatzen jata eta, beraz, ikerketarako dakaten denporia gitxitzen doa. Kontua da teleskopixuak erabilli ahal izateko kompetiziño oso haundixa dakagula geure artian, gaba bakarra teleskopixotik begiratzten emotiak dirutza balixo dau-eta, horregaittik, ordu batzutan erabilli ahal izateko aukeria eukitzeko lehiaketak

antolatzen dittue eta horretara presentatzeko proiektu haundixak eta dokumentaziño mordua preparau bihar da. Baiña, halako batian teleskopixua erabiltzeko aukeria lortzen dogun bakotxian, dakagun denporia ahalik eta onduen erabiltzen dogu ahalik eta dato gehixen batu eta gero, artikulotik zientifikotik idatzitta, gure ikerketaren emaitzak ezagutzera emoteko. Teleskopixuak Kanarrietan, Sierra Nevada, Amerikako Estatu Batuetan eta beste toki askotan dagoz, baiña munduko onenak Txi-

lekuak dira eta, jakiña, hórretako bat erabiltzeko aukeria eskuratzia benetan gatxa da.

- Zeuen biharren barri emoten daben artikulotik, baiña, ez dagoz edozeiñen eskura, ezta?

Hala da, zoritxarrez gehixenetan oso argitalpen espezializatuetan baiño ez dittugu argitaratzen eta gaiñera, ixa beti ingelesez idatzitta. Ez da harritzekua jendiak gure biharraz hain gitxi jakitzia.

- Edozelan be, zeuen inbestigaziñuak badaka eragiñik gure bizimoduan?

Eragiña mailla bittan neur-

tu geinke: lehelengo mailla batian, deskubritzen dittugunak gure haurreri eskoletan erakusten detsaguzenak dira. Eta bigarren mailla batian, guk deskubridu dittugunetako batzuk inpakto teknologikua euki dabe, adibidez, sukaldian gauzak epeltzeko erabiltzen dittugun mikrouhiñetan, hegazkiñetarako material barrixen garapenian eta beste hamaika gauzatan.

- Oin dala gitxi mundu osuan egon giñan espaziora begira Felix Baumgartnerren saltua ikusteko. Zelan ikusten dittuzu holakuak?

Zientiaren aldetik ez detsat topatzen aparteko interesik, baiña eukitzen daben inpakto mediatiko haundixarengaittik akaso baten bateri espaziarenganako jakinmiña pizteko balixo leikie. Hortik kanpora ez detsat beste interesik topatzen.

- Ez jatzun gustauko biaje espazial horretakoren batian parte hartzia?

Betidanik holako kontueta-rako nahiko beldurtixa izan naizela aitortu bihar dot eta ez dakat holako tentaziñorik. Zerura begiratzia gustatzen jata, baiña beti be oiñak lurrian eukitta.

s o s l a i a

Javier Gorosabel Urkia Eibarren jaixo zan 1969ko urriaren 27xan. J. A. Mogel ikastolan eta I. Zuloaga institutuan ikasi eta gero, Zientzia Fisikuetan diplomau zan Leioan. Astrofisika espezialidadeko lizentziaturia Madrilgo Complutensean lortu (1992) eta urte bira Oñarrizko Fisikakua be eskuratu eban. Doktore tesixa ESA Europako Agentzia Espazialaren satelitien jarraipenerako estaziñuan garatu eban (1994tik 1999ra) Villafrañca del Castillon (Madril) eta Valentziako Unibersidadian aurkeztu eta defendidu eban 1999xan bertan. Copenhaguen, Niels Bohr Institutuan bekaduna izan zan (2000-2001) eta hurrengo urtian atzera be bekia emon zetsen, baiña Andaluziako Astrofisika Institutuan Ikerketa Zientifikuen Kontseillu Gorenian (CSIC) jarduteko. 2003an NASAK kontratau eban Baltimoren dagan Hubble espazio-teleskopixuaren zientzia instituturako. Handik Andaluziako CSICra bueltau zan eta 2006xan zentru horretan zientifiko titularra izateko tokixa lortu eban lehiaketan. Harrezkero bertan dihardu.

Arrate Irratia, lizentzia barik

Iñoiz be ez dittu gauzak samur izan Arrate Irratiak eta, oinguan be, Lakuako gobernuak adjudikatutako lizentzien artian, berak eskatutakua kanpuan laga dabe eta ez dabe onartuko. Lakuako gobernuaren aldaketaren bezperan egittiari susmo txarra hartu detse askok, "batez be presaka hartutako erabagixak dagozelako tartian". Halanda be, Arrate Irratiak gaur egun moduan jarraituko dau hamendik aurrera, euren frekuentzian. Bernardo Ibarra zuzendarixaren esanetan, "zabaltzeko asmua moztu deskue, baiña euskeriaren aldeko gure jardunian ez dogu amore emongo".




G abon bezpera zan: 1959ko abenduaren 23a Arrate Irratiak, on Pedro Gorostidiren eskutik argixa ikusi ebanian. Arrakasta ikaragarria lortu eban, gaiñera, bere euskarazko progra-

maziñuarekin eta musikiakin. 1964an, baiña, orduko agintarixak ixtia erabagi eben: hamalau urte iraungo eban itxialdixak. 1978xan Arrate Irratia Elkarte sortu zan arte. Modu apalian izan bazan be,

urte hartako julixuan hasi zan emititzen barrero FM-n. Lau hillabete iraun eban bakarrik; eta beste lau urte ixillik. Baiña ez geldirik: biajiak Madrillera, Gasteizera gero, hamabi mila firma batu, ehun bat Udalen oniritzixa jaso... bide luzia. Azkenian, 1982ko abenduaren 30ian martxan ipiñi eta gaur arte, bere entzuleri fiñ erantzunez..

"egun osuan jarraitzen dabenak". Dana dala, irratixak ez detsa lagatzen entzule gehixago izateko asmuari eta toki gehixaguetara heltzekuari. Horregaittik eskatu eben lizentzia bat: "34 frekuentzia banatu bihar zirala enterau giñanian, guk hiru tokittan eskatu genduan; hortik bi bata bestiaren onduan, jakinda be holakuetan bakarra jasoko genduala", diño Bernardo Ibarra Arrate Irratiko zuzendarixak. Itxaropenik bazeken. Irailaren 14an Lakuatik abixua jasoen: "Bi egun lehenagoko, irailaren 12ko, fetxia daka. Eta hor esaten zeskuen Eusko Jaurlaritzak eskaera asko jasoz zittuala eta denbora biharko



Lakuak adjudikatutako lizentzien inguruan egoneziña sortu da.

Hiru tokittan eskatuta

Gaur egungo egoeria ez da urte haietakua eta Arrate Irratiak sendo hartu dau tokixa irradi munduan, euskerazkuan batez be. Gipuzkuan eta Bizkaixan entzuten da gehixen eta jarraitzaille sutsuak dittu,

GIDA

PRESTATZEN DIHARDUGU...

Agertuko zara, ezta?


943 20 67 76

DEITU...
943 20 09 18

zala FMko lizentziak zeñi emon erabagitzeko". Horrek lana eskatzen dabela jakinda, lasai geratu ziran Arrate Irratiak. Baiña handik aste bira lizentziak emoten hasi zirala jakiñ eben: "Interneten ikusi neban nik. Inork ez zeskun ezer bialdu ofizialki, baiña La-kuara deittu genduan eta gu-retako ez zeguala ezer esan zeskuen", diño Ibarrek.

Arrate Irratiaren kasuan dira beste emisora asko, euren esparrietan indar asko dakenak, 40 urtetan biharrian diharduen Bizkaiko Radio Popular kasu, edo Bizkaia Irratia. Kanpua geratiaz aparte, horren motibaziñua ez dabe argi ikusten kaltetuak: "Ez da normala sei hillabete itxaron bihar zala esan eta egun bate-tik bestera, hauteskundien bezperan, FMko lizentzia guz-tiak adjudikatzea... eta adjudika-tu diran moduan gaiñera". Arrate Irratikuen ustez, "era-

bagixak hartu daben mahai-xan ezer ez dakizenak dagoz edo larregi dakixenak". Horren adibide moduan jartzen dabe Onda Vascari gertatuta-kua: lehen Herri Irratia zana frekuentzia barik laga dabe Bizkaian eta Gipuzkuak eta bai emon detsela Gasteizen. Badira beste kasu batzuk be: Hamaika Irratiak ez hamaika, baiña lizentzia asko lortu dit-tu, Radio Líder Euskadik lortu-takuak be ezustia ekarri da-be eta ikusten da estatu mail-lako hainbat talde indartsu izan dirala bentaja gehixen etara dabenak: hor dagoz Pri-sa, Planeta eta Vocentoren ka-suak. Planetako Onda Cerok hiru lizentzia eskuratu dittu Uniprex soziedadiaren bittar-tez. Estatu osorako parrilla dakenak bentajia izan dabe banaketa honetan, Euskal He-rri-rako programaziñua dake-nak kaltetuta urten diran bi-ttartian.



Bernardo Ibarrek ez dau joko garbirik ikusi frekuentzia banaketan.

Euskeria gutxietsita

Hortik aparte ikusi leikegu, "erdaraz bakarrik jarduten da-ben kate musikal bati" lizen-tzia emon detsela. Halakuak argi erakusten dabe aurreko legegintzaldixan Komunikabi-dien Legiaren oiñarrirak pres-tatzen ibilli zan Ramon Zallo Komunikaziño Zientzietan doktoriak aurreratu ebana ur-te hasieran frekuentzien de-kretu erregulatazailia sortzen hasi ziranian: "Banaketa ho-rretan euskeria galtzen urten-go dau, batez be bi hizkun-tzetan jarduten eben irratiak ez diralako kontuan hartu".

Errekursua sartzeko auke-riaz galdetu detsagunian, Iba-rrek ez dau uste askorik lortu-

ko dabenik horrek: "Ofizial egitten danian ikusiko dogu. Alegaziñua? Zergaittik ez... baiña gatxa izango da".

Animoso dagoz, dana dala, Arrate Irratian, sasoi gogorreri aurre eginez: "Gerrikua lotuta, baiña aurrera goiaz, astiro. Ho-ri bai, gitxi gara; ez gara doze-na bat laguneko irrati-xa". Neurketak-eta halakuak egin barik be, gero eta entzule gehixago dakelakuan dago Bernardo. Non gehixen? "Gi-puzkuan akaso, batez be bes-te kultura bat dagualako eus-kerazko irrati-gintzaren ingu-ruan. Hamen sasoi batian Se-gura, Loiola eta Arrate zegua-zen eta ordukuari ohittu zan jendiak eusten detsa".

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SARTZEA - EUSKAL



berriro ere Eibarren

abenduak
1
ZAPATUA
16.30
19.00



abenduak
2
DOMEKA
16.00
18.30

"Sentitu, pentsatu, ekin!" lan berriarekin

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten

BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA

azaroaren 5etik 16ra (6'50 euro)

...eta kitto!-n salgai: bazkide bakoitzak 3 sarrera gehienez

SALMENTA ORDUTEGIA: 10.00-14.30 eta 16.00-19.30


GAINONTZEKOAK 17 tik aurrera (7'00 euro)

e&m argazkidenda, El Tío Palancas eta Gozoki-n



Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Bellatokia Funeuskadi Eibar:

Otxola, 27

Bulgosa:

Diezaberrita, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

©943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euzkadi

• Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leiza • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros.



19 urteko eibartarra denbora epe laburrean ETB-ko kantu lehiaketa bitan, "Kantuan" eta "Ama, ¡Vótame!" saioetan ia batera ikusteko aukera izan dugu. Aspertzeko denborarik ez duten horietakoa da, gainera, eta une honetan Peter Pan-en oinarritutako musikala preparatzen dihardu asteburuetan.

- Zelan ailegatu zinen ETBra?

Berez "Kantuan" saioko lehenengo ediziorako casting-era aurkeztu nintzen, baina ez ninduten aukeratu. Saioaren bigarren ediziorako, baina, deitu egin zidaten eta horrela joan nintzen. Lehenengo gala iraila hasieran grabatu genuen eta nik "Man I feel like a woman" abestiarekin hartu nuen parte, baina ez nintzen bat ere gustora geratu, bakarrik minutu bateko tartean abesteko aukera eman zidatelako.

- Esperientzia hobea "Ama, ¡Vótame!" saiokoa?

Bai, duda barik. Abesti berberarekin jardun nuen, baina saio horretan, behintzat, abestia osorik kantatzen laga zidaten eta, beraz, prestatuta nuen guztia erakusteko modua izan nuen, gustora gelditu nintzen eta, gainera, finalerako sailkatu nintzen, hori guzxienekoa izan zen arren.

- Eibarko Koruarekin "Oh Happy Day" lehiaketako finaleraino ailegatu zineten...

Ezberdina da eszenatokian zu bakarrik egotea edo taldearekin abestea, batez ere ez baduzu aurretik bakarlarari moduan kantatu. Taldean abestean, gainera, soinua bera ezberdina da. Bide batez, jendea

Koro Gaztitan sartzeraz animatu nahi dut. Nahi duenak Musika Eskolan galdetu dezake.

- Arte dramatikoak ikasten ere hasi zinen, ezta?



Bilbon klaseak hartzen hasi nintzen, baina hori laga eta orain Bergaran dihardut, Gabonetara begira Peter Pan-en inguruan preparatzen diharduten musikalean. Ikuskizunean azitia izango naiz, baina horrez gain musikaleko umendako koreografiak sortzen nabil, Bilbon hori eta dantza-teknikak ikasten nabil eta.

- Hori gutxi balitz, pianoa josten dakizu eta Magisteritza ikasten duzu!

Pianoarekin oso umetan hasi nintzen, tituluak daukat. Eta Donostian Magisteritza ikasten nabil, irakastea asko gustatzen zaidalako. La Salleko ludotekara ere joaten naiz, udan begirale ibiltzen naiz... Horrelakoa izan naiz beti; bestela aspertuko nintzateke.

- Horrenbeste diziplinaren artean, etorkizunera begira zer egitea gustatuko litzaizuke?

Nire ametsa musikal handi batean jardutea da, bertan kantuak, dantzak eta interpretazioak, hiruek bat egiten dutelako. Nik hala izan behar duela pentsatzen dut.



Irene Hernando
(ABESLARI ETA KOREOGRAFOA)

"Musikal handi batean jardutea da nire ametsa"

FILOAULA

Ikasi ikasten!!

- Estudiatzeko Orientabide ikastaro berezia.[®] Ikaslearen baldintza eta helburuei, eta hezkuntza sistemaren eskakizunei, egokitutako ikaste teknikak.
- Filosofia klaseak.
- Irakurketa Ulerkorreko tailerrak.

Maila guztiak: LH, DBH, Batxilergoa...

www.filoaula.com
San Juan, 3 - 1.
Tel. 658-710827

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Holidays in *Basque Country 2* jaialdia gaztetxean

Lehenengoz iaz Etxarrin ospatu zen jaialdiak izan zuen arrakasta handiarekin animatuta, aurren bigarren bezala antolatu dute Holidays in Basque Country jaialdia: zapatuan, azaroaren 3an Eibarko gaztetxean (Iparragirre kalean) egingo den jaialdia 17.00ak aldera hasiko da eta hiru probintziatik hiru taldek jardungo dute taula gainean kontzertuan, beraz bederatzi taldek guztira. Iazkoaren esperientziari jarraituta, bigarren edizio honek ere Euskal Herriko zein beste toki batzuetako jende asko, 300 bat lagun erakarriko duela aurreikusiko dute antolatzaileek.

Jaialdiko bigarren edizioa kartelak jarraian aipatutakoak batzen ditu: Bizkaitik BC

Bombs, Kruders eta Rat-zinger; Gipuzkoatik Kaleko Ur-dangak, Secuestro Express eta In Your Face; eta Nafarroatik 7 balas, Derailed eta Nafarroa 1512.

Kontzertuetan batutako dirua, bestalde, "Mujika taldeko kideei Getafeko muntaian




ipinitako isuna ordaintzeko, Saskarrak taldeko kide bati Espainiako justiziarekin dituen arazoekin laguntzeko eta Northern Drunken lokala-ren proiektua aurrera ateratzeko" erabiliko dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Barixakuan Baionako talde bi

Zapatuan bederatzi taldek kontzertua ematearekin pozik ez, eta bezperarako (barixakurako) beste kontzertu bikoitza emango dute gaztetxean 20.30etatik aurrera Baionako talde bik, The Enterprise (noise rock) eta Kuma No Motor (fast hardcore) taldeek hain zuzen ere.

Eta sanandresen bueltan, azaroaren 24an 19.00etatik aurrera AtaraZarata Fest ize-



nekoaren barruan Hell Division, Diswar, R209, Ernia, Metralleta, Perras Salvajes eta Cisma taldeek jardungo dutela aurreratu digute gaztetxetik. Eta horien guztien artean, eguna oraindik zehazteke dagoen arren, metalari eskainitako gaua egiteko asmoa ere badute.



La Salleko ikasleak espeleologian trebatzen

Orain dela egun batzuk La Salle Azitaingo DBH-ko 3. mailako ikasleak Itziarren egon ziren txangoan, hango Aixa kobazuloan espeleologia ikastaroa egiten eta, jarraian ikasitakoa praktikan ipintzeko aukera ere izan zuten. Irakasleen berbetan, "espeleologian trebatzearekin batera elkarrekin goiz zoragarria pasatzeko aukera ere izan zuten ikasleak".

Urratsbat programa, ikasleei enpresa sortzen laguntzen

Uni Eibar-Ermua BHI-ko ikasleei hitzaldia ematen jardun zuen urriaren hasieran Ruibal ibilgailuen alokairu enpresako Rubén Pedrazak. Berbaldian Eusko Jaurlaritzatik sustatutako eta Tknikak koordinatutako Urratsbat programaren inguruan jardun zuen. Aipatutako programak Lanbide Heziketako ikasleei euren enpresa proiektuak martxan ipintzeko laguntza eskaintzen die eta Pedrazak bere esperientziatik abiatuta berba egiteko aukera izan zuen, Urratsbat programaren bitartez furgonetak alokairuan eskaintzeko enpresa eratzeko aukera izan zuen eta.



Txema Cornago García

Urriaren 25ean hil zen, 62 urterekin

"LUXUA IZAN DA ZUREKIN LAN EGITEA"

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

...eta kitto! Euskara Elkarteak



Asier Serranoren

kolaborazioa

Puntu beltzak


Hogeita batgarren mendean sartu gara eta asmatu ditzagun puntu beltz gehiago: Konstelazio ahulenaren zilborra. Crema koloreko paretan maitale arrotzen odolaz elikatu den eltxoa. Ehiztari suizidaren eskopetaren muturra. Hasi eta bukatu gabeko eleberraren azken ikurra. Hileta elizkizunetan alargunak daraman pazko-zuziaren metxa. Ebakuatua izan den feriako noriaren torloju askatua. Baso hertsian bunker aurkitu berriaren atari lokaztuaren behatxuloa. Naufragoak ozeano zabalera jaurtikitako botilaren kortxo usteltzen hasia. Zure begi urdinaren ninia. Zure begi gorriaren ninia. Txorimaloaren gabardinako botoi bakarra. Jimi Hendrixek gehien gorrotatzen zuen gitarraren anplifikadorearen entxufea. Uztaroa igarota batu gabe gelditu den mahats alea. Goñiko Teodosiok kateetatik libratzeko erabili zuen orratzaren burua. Artaldeko ardi beltzak errapeetatik isuri duen lehen esne tanta. Wagnerren Valkirian azaltzen ez den nota hilgarria. Olentzerok buxatu zuen ordenazioz kanpo eraikitako etxearen tximinia. Gizakia edo tximinoa zen bereiz ez zitekeen espeziearen uzkia. Oteizaren frontoi zerutiarrean jokatzeko pilota. Kanpandorreko ezkila mutuaren ahoa. Bart bular-ertzean ez zeneukan garatxoa. Hogeita batgarren mendean sartu gara, eta dagoeneko zoriaren dadoak bere puntu beltz guztiak erakutsi dizkigu.

musika


Erasoka

"Plastic Mask Assassin"

Punk-oil doinu gogorrak, letra erasokorrek eta kalitatea: horixe da Algortako gazte horien bigarren lanean aurkitu daitekeena. Sortzen duten soina pauso bat haratago eramanez, Algortako eskolako oil rockeroa da nagusi, beti ere gitarra beste instrumentuen gainetik nabarmenduta. *Oil, Infamous Glory* edo *Algorta* birgrabatua azpimarragarriak dira eta lehenengo diskoan hasitakoa sendotzera dator bigarren hau.

Leihotikan
"Harold"

Sei urtez estudioko lan berrikerik atera gabe egon eta gero, Iruñeko taldeak 15 abestiz osatutako disko mardula kaleratu du. NOFX eta Bad Religionen ildoko Kaliforniako hardcore melodikoaren topiko guztiak betetzen dituzten abestiak ekarri dizkigute. Beste erritmo batzuekin ere egin dute jolas eta, hortaz, diskoa ez da errepikakorra egiten. Hitz gehienak gaur egun amorrarazten gaituzten gaien inguruan landutakoak dira, umoreari ere tarteak eginez.

Karlos Linazasoro
"Ezer gehiago behar gabe"

Xabier Lete Sariaren lehen edizioan saritutako poema bilduma dugu liburu hau, eta idazlearen idazkera jaso eta dotorearen erakusle da. Gaian nahiz terminologian ez da bereziki berrikuntza zalea. Tonu nostalgikoz deskribatuko dizkigu sentipenak, metaforetan naturako elementuak erabiliz eta literaturako gai estatikoen inguruko hausnarketak eginez.

Alberto Ladrón Arana
"Piztaren begiak"

Gure artean badaude idazle batzuk intrigazko istorioak eta nobela beltzak idazteko joera daukatenak. Argumentua nahasi xamarra da, honelako nobelei dagokien bezala, topikoz beteta dago... Hala ere, aitortu behar da egileak oso ondo menperatzen duela eredu hau eta jakinminz irakurtzen dela istorioa. Informazioa ezkuta-tea jokoak bihurtzen du.



literatura

LIBURU SALDUENAK

- 1.- "Tximistak" Jean Echenoz
- 2.- "Ni Vera" Itxaso Martin
- 3.- "Martutene" Ramon Saizarbitoria
- 4.- "Etxekalte" Arkaitz Zubiri
- 5.- "Zentauro hankak" Jon Gerediaga
- 6.- "Ezer ez" Janne Teller
- 7.- "Piztiaren begiak" Alberto Ladrón Arana
- 8.- "Udazkeneko lorea" Xabier Etxeberria Garro
- 9.- "Plazer bat izan duk, Benito!" Pako Aristi
- 10.- "Izu-lzua" Jokin de Pedro

EZTEIEN gehigarria

28. zenbakia - 2012ko UDAZKENeko gehigarria -

PUBLIZITATEA: Itziar ALBIZU eta Belen ULAZIA Telefonoa. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 28 72 publizitatea@etakitto.com






Ezkontza-otordua aurretik zehaztu

Ezkontzarako prestatu beharreko en artean gastu gehien eragiten duena, duda barik, otordua da. Familiako eta lagunak gonbidatzeko jabetxeak garrantzi handia du, arrazoi bi-koitzagatik. Alde batetik, gonbidatuak pozik lagatzeko moduko tokia aukeratzeari garrantzitsua da, hemen ezkon- gaien irudia jokoan sartzen delako. Gai- nera, ezin dugu ahaztu sarritan jabetxeak berak baldintzatuko duela ezkontza eguna bat edo bestea izatea, jabetxean ezkontzako gonbidatuak hartzeko tokia noiz duten arabera.

Ezkontza egunean bazkarian edo afa- rian emango den menua, bestalde, zuzenean jabetxearen kartatik edo horrelako ospakizunetarako diseinatuetakotik au- keratu ohi da. Kontuan izan behar da ospakizunean zerbitzatutako jakien kalita- te, aurkezpen eta bestelakoak menua au- keratzeko orduan, aurretik ezkongaiiei ja- tetxeak probatzeko emandakoen parekoa



izan beharko direla. Ardoak ere bere ga- rrantzia dauka eta, horregatik, ondo zain- du beharreko zerbait da. Izan ere, ardo batetik bestera desberdintasun ikaraga- rriak egon daitezke eta, gerora arazoak agertzea saihesteko, aukeraketa egiteko orduan arreta piskat eskaintzea komeni- garria da.

Ezkongaiiek ardo mota jakin bat auke- ra dezakete, baina kontuan izan hobe de- la gonbidatu gehienek gustukoa izango diren ardoak aukeratzeari, askorentzat arraro gerta daitezkeen ardo berezi eta

bikainak aukeratzen ibiltzea baino. Az- ken urteotan, bestalde, gero eta gehiago hedatu da dantzarako orduan gonbida- tuei barra libre eskaintzeko ohitura. Ho- rretarako asmoa izanez gero, jabetxe edo diskotekarekin zein edari eta zein marka aterako dituzten ondo zehaztea komeni da. Bide batez, zenbat zerbitzarik jar- dungo duten, barra zenbat denboran ire- kiko den eta nola ordainduko den beza- lakoak aurretik lotzea ez dago soberan eta ezuste bat baino gehiago saihesten la- gundu dezakete.



ROCA CALBETON, 16
-EIBAR-
TEL. 943 20 80 06

**Ezkontza egunerako guztia...
...ZURE ESKU!**





BITXITEGIA MARRODAN ERLOJUDENDA





T. Etxebarria, 24
Tel. 943 20 73 04

KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



*Edozein
ospakizunetarako
aukera*



www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO
SANTUTEGIAREN
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...







RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA



Ezkontza zibiletara egokitutako orrazkerak

Egia esateko, ezkontza zibila aukeratzen duten emaztegaiak nola orraztu behar duten zehazten duten araurik ez dago, baina orohar bide hori aukeratzen duten ezkongaiak bestelako zeremonietan ikusi ohi diren orrazkerak baino apur bat sinpleagoak diren beste batzuk nahiago izaten dituzte, besteak beste soineko eta gainontzekoak ere apalagoak izan ohi direlako.

Ezkontza zibiletarako "look"-a bestelako ekitaldi publikoek eska dezaketen formaltasun eta dotoreziaren parekoa izaten delako gertatzen da hori. Izan ere, elizatik ezkontzeak askori egun horretan printzesa bilakatzeko derrigor modukoa dakarkie eta, hori lortzeko ahaleginetan, behin baino gehiagotan larregizkoak diren apaingarri eta bestelakoek ezkongaiari berari protagonismoa lapurtzen diote.



Edozein kasutan ere, orrazkera apalak ez du inondik inora esan nahi landu barikoa izan behar duenik. Gehien zaindu behar dena orrazkerak eta jantzien estiloek bat egitea

da. Hortik aurrera, egokiena norberaren ohiko ileapaindegiko profesionalen eskutan ipintzea litzateke. Izan ere, eurek ezagutzen dute beste inork baino hobeto norberarekin bat datozen orrazkera eta bestelakoak eta, ezkontza egunean jantziko direnak erakutsita, okasiorako egokiak diren orrazkerak erakutsi, probatu eta aukeratzen lagunduko dizuete, ez izan zalantzarik.

Bidebarrieta, 20 (Galeria Komertziala) **GIZONEZKOEN ILEAPAINDEGIA**

- Punta-puntako orrazkerak
- Ile tratamenduak

ORDUA HARTZEKO: Tel. 943 20 16 48

Birjñape, 1 masquennias@gmail.com 943-257988

Uñas

- Aurpegi, esku eta oinetako tratamenduak
- Gel eta portzelanazko azazkalak
- Ictioterapia (Garra-Rufa arraina)
- Depilazioa
- Makillajea...

Udazkenean ere eguneratzeko aukera duzu **EN BOGA-n**. Horrela esan ahal izango duzu...

NICE NAIZ

BOUTIQUE EN boga ESTILISTAK

Ifar kale, 6
943 702024

ILEAPAINDEGIA ESTETIKA

RETRO

Arragueta, 25 943-254512 / 943-120722

Ilea zaintzen profesionalak
Osasuntsu eta distira naturala
Keratina tratamenduak

HIRU HILABETERO promozioak, opariak eta deskontuak

Ezkontzeko prest!

Kalitatea sukaldean
Jon Odriozola chef-a

Ordutegi zabala
berandura arte



Arreta pertsonalizatua
Zure egun berezia

Tel. 943 202 727 Faxa. 943 208 991
Arrate auzoa -EIBAR-



HOTELA
JATETXEA

conecta@hotelkrabelin.com

www.hotelkrabelin.com

RPS 189/09

KERALA

www.estetikakerala.es
Urkizu, 11 Tlf. 943 53 05 25

Makillajea Etxean Bertan
Ordutegi barik, erosoan datorkizun tokian

Estetika Tratamenduak, Manikura,
Pedikura, Depilazioak, Dietetika...

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

Lakett

ESTETIKA MASAJEA

BILATZEN ZAUDEN
GUZTIA LAKETT-EN
AURKITUKO DUZU!!

GURE SEKRETUA: Zure
azalean eta gorputzean
atzemango da

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00 ZAPATUETAN: 09.00-13.00

SPA ORBEA

ESTETIKA & WELLNESS

- Aurpegi eta Gorputz Tratamenduak
- Vichy Duxa
- Fisioterapia
- Masajea
- Fotodepilazioa
- Foto-gazteagotzea

Orbea Kiroldgia (Urkizu, 11) Tel. 943 030 015

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA

30 euro ZONA

Hanka osoak + Izterrondoak 90€

Gorputz tratamenduak

LEHEN	ORAIN

5 saioko BONOAK

Zona bat ... 35 euro saioa
2 zona 50 euro saioa
3 zona 65 euro saioa



Opari zerrenden erosotasuna


Gure inguruan ezkongaei opari modura dirua emateko ohitura handia dago, baina oraindik ere badaude bestelako opariak egitearen aldekoak eta horientzat opari zerrendak oso lagungarriak gerta daitezke, batez ere oparirako zer aukeratu erabakitzeko orduan. Sasoi batean gonbidatuei oparia non erosi esatea gustu txarrekoztat jotzen zen, baina gaur egun ez da hala gertatzen. Are gehiago, aukera hori izaten da erosoena ezkongaiantzat zein gonbidatuentzat ere. Opari zerrenda antolatzeko modu ezberdinak daude, baina bi dira ohikoenak: lehenengo aukerari jarraituta, ezkongaei oparien aukera zehaztu eta gonbidatuek horien artetik aukeratuko dute zer oparitu eta, bestela, bigarren aukerari jarraituta, ezkongaei hautatutako dendan edo dendetan zuzenean eurek eramandako ordaintzeko aukera ere badago. Lehenengo aukerak eskaintako abantailak asko izanda ere, ezin dugu ahaztu eragozpen bat ere badagoela: opariak epe jakin baten ba-



rruan jaso egin beharko dira eta epe hori pasa ondoren opariak han edukitzea kobratu egingo die dendak. Bigarren aukeran, gonbidatuek ezkongaei aukeratutako dendan diru kopuru jakin bat lagatzen dute, gero bikoteak nahi dituen opariak erosten erabili dezan.

Opari zerrenden arazorik handienetako opariak aukeratzeko epea irauki egin daitekeela (denda batzuetan hiru hilabetekoa da) da. Izan ere, epea amaitu aurretik zerbait erosi beharrak askotan behar ez diren produktuak erostea eragin

dezake, ondo pentsatzeko tarterik izan ez dutelako. Horregatik, ezertan hasi baino lehen zerrendaren baldintzak zeintzuk izango diren argitzea eta aipatutako egoeraren bat ematekotan zer egingo den kontratu batean argi jasotzea komeni da (oro har, hitzeko kontratuarekin nahikoa litzateke). Eta, horretarako aukera izanez gero behintzat, opari zerrendak denda batean baino gehiagotan edo produktu mota bat baino gehiago dituztenetan zabaltzea litzateke egokiena.



fasprint
Inprimategia
Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean
 fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es
 Ego Gain 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

KAFEA, TEA eta TXOKOLATEA
 Ezkontza-opari originalak eta gonbidatuentzako detaileak.
KATETXO Jaunartze-opariak, urtebetetzeak eta beste ospakizun batzuk.
Julian Etxeberria, 5
 katetxo@yahoo.com
 943-257536 eta 628-330634



KIRURI
Loiola auzoa, 24 AZPEITIA
JATEETXEA
 Telefona: 943 81 56 08 Faxa: 943 15 03 62
 E-maila: kiruri@wanadoo.es


F. PASCUAL Arane, 6
 Telf. 943 20 61 64
 Faxe. 943 20 85 43
 20600 EIBAR

VIRGINIA PASCUAL
 Zubiaurre, 36 (behea)
 Tel. eta Faxe: 943 17 68 28
 www.cocinaspascual.com
 48260 ERMUA



SUKALDE ALTZARIAK BARNERAKO

Aisia Hotelek ezkontzak eraberritu eta berrasmatzen dituzte



AISIA DEBA ETA LEKEITIOKO ZUZENDARITZA BERRIAK TOKIKO PRODUKTUAREN ALDE EGITEN DU

– Nola egingo diote aurre Aisia Hotelek kaskarra datorren 2013. urteari?

Egoera ekonomikoa txarra bada ere, Aisia Hotelak baikor dago, gaur egun aurreko urteetan baino bankete gehiago ospatzen direlako. Alde batetik, Mireya Azpiazu Aisia Deba jatetxeko arduradunak dio oso pozik dagoela aurten ezkontzek izan dituzten emaitzekin, eta 2013. urterako dituzten aurreikuspenak ere onak direla. Zentzu horretan,

koktel-en aurkezpena berrizatzen ari dira eta ezkontzetako menuak ere aldatu egin dira, tokiko produktu ugari sartuz.

Eduene Aisia Lekeitioko (Emperatriz Zita) sukaldaritzazuzendari berriak positiboki baloratu du bezeroek nola hartu duten proposamen gastronomiko berria. 2013. urteko aurreikuspenei dagokienez, Eduene baikorra da, beste alor batzuk asko lantzen ari direlako, hala nola kafetegiko neguko karta. Herriko jendearen artean oso harrera ona dauka karta horrek.

– Zerk bereizten du Aisia Hotelak besteengandik?

Aisia Hotelak 6 establezimendu ditu Euskadin eta Kantabrian. Aisia Hoteletan txoko bakoitza gozamen eta lasaitasunerako dago pentsatuta. Ingurumenari errespetua, gastronomia sortzailea eta kalitatezkoa eta hidroterapia osasun- eta edertasun-formula gisa dira definitzen duten kontzeptuak.

Espazioek nortasun propioa dute, kokapen pribilegiatuan daude eta diseinu moderno eta gaur egungoarekin egindakoak dira.

Horrez gainera, zerbitzu eta arreta profesionala eskaintzen dugu. Langileak dira arrakastaren gakoa. Aisia Deban zein Aisia Lekeition hotelaren zuzendaritza aldatu da eta inguruko langileak aukeratu dira haren gidaritzarako. Aisia Deban **Mireya Azpiazu** dago, **Xagit Andonegi** sukaldeburuarekin. Aisia Lekeition **Eduene Hortak** eta **Javier Ugartek** talde sendoa osatzen dute.




AISIA DEBA ETA LEKEITIOKO SUKALDARITZA-ARDURADUNEK ARRAKASTAREN GAKOAK AZALTZEN DIZKIGUTE:

“Lehenik eta behin, hotelaren kokapenak, hondartzaren ondo-ondoan, bista zoragarriak eskaintzen dizkigu jangelatik. Terraza, zeremonia egiteko ezin hobea, gure koktel berria dastatzeko lekurik onena da. Banketeei dagokienez, kalitatezko gastronomia eskaintzen dugu, inguruko produktu freskoak erabiliz, adibidez Ondarroako arraina. Guzti horri ezkontzaren erabateko pertsonalizazioa gehituta, Aisia Hotelak aukerako lekua da era guztietako ospakizunetarako”.

DEBA

Markiegi, 6
Tel. 943-608052

deba@aisiahoteles.com



LEKEITIO

Sta. Elena, z/g
Tel. 94-6842655

lekeitio@aisiahoteles.com



Amabitxiendako punta-puntako aukerak

Gaur egungo ezkontzetan aurki ditzakegun amabitxiak beste sasoi bateko amabitxiekin zerikusi gutxi daukate eta horrelako egun berezian, ezkonduko dena beste bat izanda ere, amabitxiak ere euren protagonismo puntuari eutsi nahi izaten diote, dotore egotearekin konformatzeaz haratago. Eta norbaitek oraindik ere amabitxiaren garrantziaz zalantzarik badauka, zalantza horiek guztiak uxatzeko moduko arrazoiak aurkituko ditu Eibar-

ko dendetan amabitxiendako azken kolekzioak begiratu hutsarekin. Linea leunak nagusi dira kolekzio honetan eta oso diseinu femeninoak lortu dituzte kaftan eta tuniketan inspiratutako jantzetan. Kanpai-itxurako mauka eta bes-



telakoak erabilia, gainera, mugimenduaren ilusioa sortzen dute eta, gainera, ukitu "chic" bat ere ematen diote.

Ehunak ere oso arinak dira: chiffon,

enkaje, gasa eta antzerakoei esker, gona, praka edo blusa benetan dinamikoak lortu dituzte diseinatzaileek. Hain zuzen ere, aipamen berezia merezi dute "palazzo" prakek eta goiko piezek osatutako konjuntioak, hurrengo sasoirako berritasunik handiena horiek izango dira-eta. Eta koloreak edonon eta barra-barra: laranja, urdinak, berde argiak eta fuksiak jaun eta jabe dira bilduma osoan.

Bidebarrieta, 1

Laumar

Tel. 943 20 16 26



EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)

ANTXON DEGUSTAZIOA

-T. ETXEBARRIA, 13-
Tel. 943 20 63 22
943 20 05 47

¡CÓME ME TODO, ASIER!
¡HAZME UNA MAMADITA!

943 20 88 47 688 67 89 34

LORA DENDA

Larrea

Isasi, 16

San Juan, 1
943 20 33 29

Irudi


San Andres gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

Bidebarrieta 28
Tel. 943 20 79 73

Aranarentzat II. Rallysprint-a

Ander Aranak irabazi zuen **zapatuan** Barinaga eta Ixuaren artean jokaturako Eibarko II. El Corte Inglés Rallysprint-a. Escudería Eibarko antolatzaileek egun horretako eguraldi kaxkarrari egin behar izan zioten aurre eta 38 izan ziren proba amaitu zuten pilototak. Ander Aranak irabazi zuen Joxe Labakaren aurretik eta azken honek jantzi zuen azkenik Euskadiko txapela, sailkapenean aurretik zuen Joseba Zapiraini lidergoa kenduz. Aitor Barrueta (4.a) eta Jorge Rodríguez (6.a) izan ziren Escudería Eibarko onenak.




Rugbilariak liderrak Ohorezko B mailan

Ez da ohikoa mailaz igo eta lider jartzea, baina hori lortu dute Hierros Anetxeok azken jardunaldian F.C. Barcelonari 31-14 irabaziz. Modu horretan, bost puntu eskuratu zituzten Isasaren mutilek: lau garaipenarengatik eta beste bat erasoko bonus-ari esker. L'Hospitalet dute eibartarrek puntu bakarrera eta bira daude Pegamo Bera Bera handia eta Oviedo Tradehi. Hurrengo jardunaldian Hierros Anetxeok

Durango jokatu dute mulzoko azken postuan dagoen taldearen aurka, hor ere puntuak ateratzeko asmoarekin.

Aurreko astean neskek Durango izan zuten aurrez-aurre, bizkaitarren aurrean 60-5 gailenduz: jaun eta jabe, beraz, eibartarrak, bai zelaian eta baita markagailuan ere. Eta kadeteen taldeak, Reinosari 21-27 irabazi eta gero, Euskadiko txapelketaren lidergoa eskuratu zuen.



Sei eibartar Euskal Ligako Arrasateko squash torneoan

Alberto Ferreiro lehiaketara bueltatzen den torneo honetan urtebete kantxatik kanpo egon eta gero; indartsu bueltatu da, azken koadroetatik finalerdiraino helduz eta hirugarren postuan amaituz. Ez

zuten zorte bera izan Jon Losadak (min hartuta bigarren partiduan laga behar izan zuen torneo) eta Sergio Salgado; azken honek final-laurdenetan ezin izan zion irabazi finalera helduko zen Carlos García

sestaoarrari. Patxi Zuluetak eta Jonatan Alustizak aurrefaseko partidua irabazi zituzten eta final-zortzirenetan geratu ziren kanpo. Oscar Ferreirok, azkenik, ezin izan zuen aurreko fase horretan aurrera egin.



Txopen Euskadiko txapelduna hiru-txirlotan

Asola-Berriko ordezkaria ez da konformatu veterano onena izatearekin eta Euskadiko XXIII. hiru-txirlo txapelketa bereganatu zuen "etxeko" bolatokian jokaturako azken jardunaldian. Jose Mari Larreategik bi txirloko aldea atera zion Iruzubietako Luis Guenagari eta bostera geratu ziren Ibai Díez

eibartarra eta Sebastian Aranzabal elgetarra. Horrez gain, Jose M^a Larreategi "Txopen" bigarrena izan zen binaka, Jesus Mari Díezekin batera; eta, taldeka, Asola Berri B-k bereganatu zuen txapela, hiru txirloko aldea aterata San Miguel A-ri eta laukoa Asola-Berri A taldekideei.

Concepto Egilek gustoa hartu dio lidergoari

Jakan ere erraz nagusitu zen Debarrenako talde nagusia, 1-6 irabaziz. Maderas Altoaragón presioa egiten saiatu zen, baina algoibartarrak hori apurtzeko gai izan ziren, batez ere Alexen (3) eta Fher-en (2) golei esker. Aurreko astean, bestalde, Olaizaga kiroldegian jokaturako Triman Navarra maila handiagoko taldearen aurkako lagunarteko partiduan, bikain jardun zuten Conceptoek, gol bakarrarengatik galduz (5-6).

MaqCenter Debarrenako bigarren taldeak, bestalde, oraindik ez dio neurria hartu mailari eta 2-4 galdu zuen Eborriokorekin Ipuruan Euskal Ligako bosgarren jardunaldian. Ez da ahaztu behar lehen eta bigarren urteko bost jubentilek jokatu dutela Eibarko taldearekin. Eta infantil mailako Debarrenako infantilek 6-7 irabazi zuten Tolosako Laskurainen kantxan liga hasierako partiduan.





Amaia Ugarte

Gau magikorik ez

Hau da hau, boteretsuen gaitasuna. Ilusioz eta poztasunez bizitzen ari beharko ginen Athleticen bisitaren aurreko egun hauetan, amorruek eta haserreak ia nagusitzea lortu dute. Eibarrek itxaronaldi luzea lurperatu zuen, Bigarren B mailako taldeek “galaktikoak” Kopan aurrez aurre izan aurretik ibili behar duten maratonia gaintuz. Baina, zoritxarrez, izarrekin batera haien ugazabak datoz, sekulako festa iluntzeko duten gaitasun ikaragarria erakutsiz. Federazioak eta Ligak, beren ikus-entzunezko interesez gidatuta, Eibarrek Athleticen aurka eguerdiko hamabietan jokatzera erabaki dute, talde eta zaletuon haserrea piztuz. Kopan pentsatzerakoan ez zaizkigu kruasan eta kafesnea bururatzan, txikiteoa, ogitartekoa eta zahatoa baizik. “Gau magiko” esaera ezaguna ez zen eguerdian jokatutako partidu batean sortu. Futbol zelaietan, giroa iluntasunarekin batera areagotzen da. Eta giroa, zaletuen berotasun eta gogoia, talde apalek txapelketa hauetan izaten duten arma garrantzitsuenetarikoa da. Kaltea argia da arlo ekonomikoan ere. Klubari dagokionez -sarrera eskasagoa izateaz gain, teibistak diru gutxi emango baitio-, baina baita herriari dagokionez ere. Ostalaritzari, batez ere. 2.000 zaletu zurigorrien txikiteoa ez baita krisialdiari aurre egiteko laguntza txikia. Nik irtenbide bakarra ikusten dut: Athletic kanporatzea, ia hurrengoarekin zorte gehiago daukagun. Aupa Eibar!

Asteburu alaia eibartarrentzat saskipean

Zapatuan Kiroldegian izan zen musikak ez zien inolako kalterik egin gure herriko saskibaloiko talde biei: horrela, Extremadurako Jaiko doinuekin irabazi zuten bai Katu Kalek, baita Ruibalek ere. Ruibal 88-82 nagusitu zitzaion Oriokori, partidu estu eta tratatua azken minutuetan hobeto kudeatu ondoren. Emaizta horrekin, eibartarrak bigarrenak dira Gipuzkoako 2. mailako sailkapenean; hurrengo partidua Donostiako Benta Berri kiroldegian jokatuko dute zapatuan, Donosti Dolphinsen aurka. Katu-Kalek, bestalde, orain arte partidurik galdu gabe zegoen Mondragon Unibertsitatea B-ri irabazi zion Ipuruan (62-57). Neurketa bikaina egin zuten eibartarrek azken laurdenera iritsi



arte: hor gauzak estutu baziren ere, garaipena etxean geratu zen. Katu-Kalekoek Astigarragan jokatuko dute hurrengo partidua.




Herriko duatletak bikain Zumarragan

Eibar Triatloi Taldea onena izan zen taldeka Urretxu-Zumarragako duatloi super-sprinta proban. Maila handia erakutsi zuen bertan izan zen lauko ordezkariak eta, horrela, Juanjo Romero onena izan zen beteranoen mailan, Peio Osoro bigarrena berean, Txomin Osoro hirugarrena berean eta Ibon Romero bosgarrena. Hortik aparte, Peio Osorok podiuma eskuratu zuen lasterketan, absoluto mailan hirugarren postuan sailkatu zen-eta.

Neurketa parekatuak waterpoloko ligan

Urbat Urkotronik-eko talde nagusiak 12-13 galdu zuen domekan Náutica Portugalete B-rekin Orbea kiroldegian; hala ere, atzetik joan eta gero, bizkaitarrek berdintzeko gai izan zen bitan (3-6kotik seinako berdinketara joan zen eta 6-8tik 11nako-raino). Ligako lehen partidu hori galduta ere, eibartarrek iazko bigarren postua hobetzeko asmoa dute. Euren atzetik jokatu zuten infantil mailakoek, bestalde, mendekua hartu zuten, Náuticakoei 8-7 irabaziz, hor ere oso neurketa parekatuan. Hurrengo zapatuan Urbatek Waterpolo Donosti hartuko du Orbean, 14.45etan, eibartarrentzat “hil ala biziko” beste partidu ba-



IRUZUR LUZEA

apuntia

Horrela bedekatu du UCIk, txirringularitzako urratsak -ez dakigu nora- zuzentzen dituen erakundeak Lance Armstrong txirringulariaren ibilera. Amerikarra harrapatzeaz aparte, inguruko guztiak zipristindu ditu eta zaletuak ez daki noraino jo kirol horren garbitasunaren zantzuak sumatzeko. Zazpi Tour irabazlerik gabe geratu dira, UCI-k USADAren txostenari jarraitu ondoren: badirudi ez zuela bestelako aukera handirik, orain arte txapelkun handia zenaren tentakuluak oso urrutira heltzen baitziren, UCIkoak bertakoak ere zikintzeraino: haren diru-laguntza jasotzea aurpegiratzen zaie, bere alde “positibo” bat edo beste ezkututzea... batek daki! Gauzak garbitze aldean ipinita, kirol prentsako komunikabide handienek manifestua kaleratu dute praktika garbien alde eta UCI-ri “mea culpa” eskatuz, egindako hankasartzeak onartu ditzen. Badira esaten dutenak beste kiroletan ere halako sustantziak erabiltzen direla eta ez dela horrenbeste jarraitzen. Zaila da hori sinestea, batez ere probarik ez dagoelako.

Eibarrek bi partidu jokatuko ditu 48 ordutan ia

Neurketa bi horiek telebistaz emateko asmoek apurto egin dute Gaizka Garitano entrenatzaileak nahiko lukeen prestaketa eta bere kexak azaldu ditu, "foballean jardun duen edonork daki-eta talde batek ezin duela behar den moduan erantzun hain epe motzean bitan jokatu". Bihar eguerdian (12.00etan), Domusantu egunean, Kopako partidu izango dute eibartarrek Athletic-en aurka Ipuruan; eta zapatu arratsaldean Realaren bigarren taldea hartuko dute arratsaldean telebistaz emango den partiduan. Ipuruako zelaia, gainera, ez dago bere onenean.



Garitano.

berriak

KALAMUAKO JUDOKAK

Sauvagnon Frantziako herrian jokatuako infantil mailako judo txapelketan, Kalamuako judoek bikain jardun zuten eta, 60 kilotik beherakoen mailan, Iker Martínezek eta Iker Gorostizagak podiuma eskuratu zuten.

FOBALL-ZALETUAN JAI

Asteburu honetako zubia aprobetxatuz, Kiroljokoa ligak atsedena hartuko du eta ez da partidurik izango. Azken jardunaldiko emaitzen ondoren, Durango da liderra: bi puntuko alde kentzen dio Garajes Garciari eta hiru Alkidebari

Eibar Eskubaloia vs Aranga Soria zapatuan

Goi postuetarako borrokarako lehia izango da zapatuan Ipuruan (19.00etan hasita) sailkapenean 2. eta 3. postuetan daudenen arteko norgehiagokan. Soriakoek eibartarrek baino puntu bat gehiago dute une honetan eta, horregatik, garrantzi berezia izango du partiduak talde

bientzat. Eibar Eskubaloia 26-32 nagusitu zitzaion aurreko asteburuan Egiari, partidu guztian aurretik joan eta gero, aurreko neurketetan baino partidu osoagoa eginez.


Gazteendako deialdia

Alebin kategoriako neska-mutilendako deialdia egin

du Eibar Eskubaloiak. Hitzordua azaroaren 11rako da, goizeko 09.00etan, Ipuruako kiroldegian egingo diren probetarako: LHko 5. eta 6. mailan ikasten dihardutenak (2001 eta 2002an jaiotakoak) aurkeztu daitezke proba horietara eta kirol jantziak eraman beharko dituzte.

MERIKATU PLAZA
 produktu fresko eta kalitatezkoak
Astero
 eskaintza
harri garriak!

HIRAKO GIALA



AINHOA ALBERDI antzezlea "Barrea eragiteko magia berezia dauka lan honek"

Azaroaren 6an, ...eta kitto! Euskara Elkartearen "Illunabarrian" programaren barruan, "Eta Karmele?" lana taularatuko dute Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias antzezleek Portalean, 19.00etatik aurrera (sarrera doan). Antzezlanana Samara Veltek idatzitako testutik abiatzen da eta ardatza emakume biren arteko elkarrizketa da. Antzezlanean hitanoan jardungo dute protagonistek.

- Zelakoa da kontatzen duzuen istorioa?

Lehenik eta behin teatro absurdoa dela argi laga behar dugu eta, beraz, taula gaineko egoera ere nahiko absurdoa da: automobil baten barruan geldirik gauden andra bi gara eta, horren aitzakiarekin, bizitzari buruzko elkarrizketa sortzen da gure artean. Protagonista biak andrazkoak izaki, antzezlanean emakumezkoen ikuspegia nagusitzen da, estetika bera zein elkarrizketa bidez sortzen doan hausnarketa femeninoan eginak dira. Andren kontrako indarkeriaren gaia, adibidez, zeharka agertzen da.

- Nor da antzezlanaren izenburuan aipatzen den Karmele?

Ba antzezlanana amaiera aldera ailegatzen doan neurrian, ikusle bakoitzak bere irakurketa egin eta "bere Karmele" zein den aukeratu beharko du, bakoitzarentzat ezberdina izaten da, taula gainean ikusi eta entzun duenaren inguruan egiten duen irakurketaren arabera.

- Taula gainean dauden elementuak gutxi eta nahiko sinpleak izanda, nola lortzen duzue publikoari barrea eragitea?


Egun bakarrean taularatzeko asmoz ekin genion lan honi eta harrezkero lau urte igaro dira eta ehundik gora funtzio eskaini ditugu herri eta areto ezberdinetan eta, egia esateko, ez dakiugu oso ondo zergatik izango den, baina toki guztietan jendeak barre mordo egin du, alde horretatik badu horrelako magia berezi bat. Hasierako 10 minutuetan jendea non kokatu erabakitzea kostatzen zaio, baina behin absurdoaren jolasean sartzen direnean, gu ere harritu egiten gara batzuetan jendearen barreekin. Ixilune ugari dituen lana da eta, beraz, keinuek garrantzi handia daukate. Keinu txiki bat nahikoa izaten da askotan jendeak barre egiten hasteko.

- Zuen arteko jardunean hitanoa darabilzue. Zergatik?

Egia da mutilen artean asko egiten dela eta nesken artean askoz ere gutxiago erabiltzen dela, nik neuk ez nuen aurretik erabiltzen. Baina Iraiak eta inguruko beste askok erabiltzen zutela ikustean animatu eta ni ere hasi nintzen horretan. Berezi zuka idatzita zegoen, baina moldatu egin genuen eta hitanoarekin gertutasun handiagoa lortzen dugu, beste energia bat.

Sanandresetarako kartela aukeratu dute

Aurtengo San Andres jaiak iragarriko dituen kartela aldameneko irudian ikusgai duzuen, Natalia Garrido Acebesen "Jalgi adi plazara" izenburukoa izango da. Umeen mailan, Jose Antonio Martinen "Oiloa arrautza jartzen" lana saritu dute (11-14 urte bitartekoan) eta Garoa Magunazelaia Usobiagaren "Sanandresetako aurpegia", berriz, 10 urtera artekoen mailan. 76 parte-hartzaile izan ditu lehiaketak edizio honetan (helduen mailan 38 lan jaso dituzte).




Ixtorio Mixtorio umeendako dantza ikuskizuna

Azaroaren 10ean ailegatuko da Coliseora "Maritzuli: Ixtorio Mixtorio" dantza ikuskizuna, 17.00etan (sarrerak 5 eurotan salgai). Lapurdiko Maritzuli eta Xinkako dantza taldeak, eta Behobiako Eraiki dantza taldeak osatzen dute Ixtorio Mixtorio ikuskizuna. Lana 1996an estreinatu zen eta orain, 16 ur-

te igaro eta gero, bere sasoian arrakasta handia izan zuen ikuskizuna berri eta hori aurkeztera etorriko da Maritzuli, Claude eta Jon Iruretagoienaren zuzendaritzapean, euskal dantza tradizionalaren munduan barrena bidaiatzeko aukera paregabea eskaintzen duen ikuskizunarekin.

Juan Luis Ibarluzearen liburu berria, Ego Ibarren eskutik

Laster emango dute argitara "Newtonen sagarretik esku-pilota kuantikora. Berrikuntza eta zientzia zabaltzen" Juan Luis Ibarluzea Laskurain ingeniari eibartarraren liburu berria. Ego Ibarra batzordeak argitaratuko du lana, "Eibarko Koadernuak" sailaren barruan, eta paperean zein edizio digitalean eskuratzeko aukera egongo da. Egileak edonork ulertzeko moduan azaltzen ditu fisika kuantikoari lotutako hainbat kontzeptu, esku-pilota horretarako aitzakiatzat hartuta. Lanak Teknikerrekoko adituen azterketa zientifikoa jaso du.



Barricadaren kontzertua sanandresetan

Lambretta Klubak eta Udalak antolatuta, azaroaren 24an Barricada taldeak kontzertua emango du Astelena frontoian, 23.00etatik aurrera. Iruñako Txantrea auzoan 1982an sortutako talde ezagunak bere lanik berriena, iaz grabatutako Flechas Cardinales izenburuko diskoa aurkezteko zuzenekoak eskaintzen dihardu eta Eibarren ere izango dugu abesti berriak entzuteko aukera, lehenagotik ezagunak zaizkigun beste hainbatekin batera. Sorreratik Barricadaren ahotsa izandako Enrique Villarreal "El Drogas"-



Barricadak azaroaren 24an emango du kontzertua Astelena.

ek bakarkako proiektu berriari ekiteko taldea iaz laga zuen arren, betiko estiloari eusten dioten Javier Hernández (ahotsa, gitarra eta koraak), Alfredo Piedrafita (ahotsa, gitarra eta koraak), Ibon Sagarna "Ibi" (bateria eta koraak) eta Ander Izeta (baxua eta koraak) izango dira taula gainean. Sarrerak aldeztu erosteko (20

euro) www.jaiproductions.net webgunera jo daiteke edo, nahiago izanez gero, jarraian aipatutako tabernetako batera: Birjiñape, Trinkete, Portalea Taberna, Arno, Terraza, Caserío, Lanbroa (Elgoibar) eta Xagua (Ermua). Egunean bertan, Astelena frontoiko leihatilan ere salgai ipiniko dituzte (25 euro).

Benantzi Bilbaok agurtuko du Musikaldia

Aurreko astean abiatu zen XX. Musikaldia gurean, Ukrainiako Credo abesbatzaren emanaldiarekin eta honezkero Letonia, Frantzia eta Filipinetako abesbatzak Coliseoan abesten izan ditugu. Hala ere, azken emanaldi bat falta da Musikaldiaren egitaraua amaitutzat emateko: azaroaren 9an Joxe Benantzi Bilbaok organistak "Entre lo divino y lo humano" izenburuko kontzertua emango du San Andres elizan, 20.00etatik aurrera.



Astelehenean hasiko da laburmetraia jaialdia

Datorren astelehenean, azaroaren 5ean hasiko dira XIII. Eibarko Asier Errasti Laburmetraia jaialdiko proiektzioak, lehiaketara aurkeztutako lanekin. Barixakura arte egunero proiektatuko dituzte laburmetraiak Coliseo antzokian, 19.30etatik 21.30etara. Irabazleei saria emateko ekitaldia, berriz, azaroaren 10ean (zapatuan) egingo da Portalean, 19.30etan hasita.



laburrak

1944-AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 17an ospatuko dute jaia urte horretan jaiotakoek, honako egitarauari jarraituta: 13.00etan Arkupe tabernan batu ko dira, piskolabisa eta zapi bana hartzeko eta ondoren Untzagan talde argazkia egingo dute. Bazkaria Unzaga Plaza hotolean izango da (15.00etan). Izena emateko 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 3035 0078 81 078105220 kontu zenbakian.

BARNE KRISIARI BURUZ

Astelehenean 19.30etatik aurrera Lola Matesanz-ek hitzaldia emango du Arrate Kultur Elkartearen, "Barne krisia, kanpo krisia" izenburuari jarraituta. Hizlariak krisiari nola aurre egin eta gure bizi-kalitatea hobetzeko hainbat jarraibide emango ditu.



BAKAILAO TXAPELKETA

Sanandresen inguruan urtero antolatzen duten Bakailao txapelketa azaroaren 25ean (domekan) jokatzen hasiko da, 11.30etan Untzagan. Parte hartu nahi duten bikoteek astelehenetik (hilaren 5etik) aurrera izango dute izena emateko aukera, Pegoran.

LUCIO NARBAIZA GAZTELUren 1. URTEURRENA (2011-XI-3)

Haren aldeko meza ospatuko da azaroaren 4an (domekan), 11.00etan, Azitaingo Andra Maria Jasokundearen elizan.





Xabier Agirre

M-18=A-14

“... Eibar football taldeak errege-kopan Athleticen kontrako kanporaketan aurrera egin du. Finalerako bidean Bartzelona eta Madril gainditu eta, gaur, maiatzaren 18an, finalean, Atlético de Madrid-ekin egin du topo. Hemen ere irabazi Eibarrek, eta, hartara, egoera bitxia ikusi dugu gaurkoan: aitonari erbestera bidea erakutsi zion herriak bilobaren eskutik kopatzarra jaso du. Halako batean Eibar taldekoek kopari buelta eman eta haren gainean eserita atera dute txapeldunen argazkia. Jendea orroka hasi da. BBCK notizia mundu zabalean barreiatu du, eta Atlantatik eta Dohatik deika hasi dira udaletxeko zentralitara. Han ez dago inor. Denak kalean dira algaraka. Goizaldean, ordea, Eibarko jendea urduri dago. Goardia zibilen joan-etorriak ez dira batere lasaigarriak. Zaletu ausartenak, banderak hartuta, Ipuruako koartelera abiatu dira ea ze demontre egiteko asmoa duten galdetzerara. Hurrengo eguerdiko teleberrietan garaipena eta ospakizuna lehen albiste dira. Bartzelonako Ramblak jendez gainezka daude. Beren garaipena bezala ari dira ospatzen Eibarko taldearen balentria. Ia denek Eibarko ekipoaren antzerako elastikoa daramate soinean...”

Bonaparte osaba-iloben gorabeherak alderatu zituenean, Marxi kasu eginez gero, historia bi aldiz errepikatzen da: aurrena tragedia bezala, gero fartsa moduan. Izan ere, fartsak, errealitatea desitxuratzearen poderioz, honen zirrikitu sakonak erakusten ditu. Bestela galdetu gure Homero maitatueneri, Homer Simpsoni.

○ Euskaraz txioa Mintegi garaille

Deustuko Unibertsitateko DeustoSare-Lab-ek Legebiltzarrerako hautagaien kanpainako txioak aztertu ditu irailaren 23tik urriaren 7ra, zenbat izan diren euskaraz eta zenbat gaztelaniaz. Laura Mintegi izan da euskaraz gaztelaniaz baino mezu gehiago bidali dituen bakarra: euskaraz %60 eta gaztelaniaz %40. Iñigo Urkullu ez da iritsi mezuen laurdena euskaraz egitera (%21'6) eta, euskarazko kopurua kontuan hartuta, ondokoa da gainerako hautagaien zerrenda: Aitor Urresti (Equo), %18 eta Mikel Arana %7. Patxi López eta Antonio Basagoitiaren txio guztiak gazteleraz izan dira.

○ Esperientzia praktikoak euskaraz

Euskal herrian garatu diren esperientzia praktiko batzuen berri eman zen urriaren 19an antolatutako #euskarabildua Jardunaldietan. Horien artean izan ziren Tropela, Osasunlingua eta Arbel digitalaren proiektuak. Tropela euskara hutsezko webgunea da eta tximindulartari lotutako lehiaketetan oinarritzen da, batez ere. Osasunlingua Akting enpresak osasun-laguntzarako sortu duen aplikazio informatikoa da eta Osakidetza bakoaren sarean ezarri dute. Bertsoarako arbel digitalak bertsoetan ikasten laguntzeko aplikazioa da, IXA taldeko Manex Agirezabalen proiektua.

euskararen txokoa

Perretxiko bilduma ikusgarria

Asteburuan egin dira XIV. Jardunaldi Mikologikoak Klub Deportiboaren eskutik.

Zapatuan herriko ikastetxeetako umeak, gurasoek lagunduta, perretxikoak batzeko irteera egin zuten eta bueltan, Aranzadiakoek lagunduta, batutako guztiak sailkatu zituzten Deporren. Domeka eguerdian, berriz, perretxikoe-kin erakusketa ipini zuten ikusgai udaletxeko arkupeetan, bakoitzaren aldamenean izena eta bestelako ezaugarriak ipinita. Umeek, gainera, herri kirol ezberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten, besteak beste Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariak eta Dioni Kortina harrijasotzaileak lagunduta. Amaieran, sariak



banatu zizkieten: aurkezpen onenari saria Jokin, Olatz eta Maddik jaso zuten; ikastetxeka, Aldatzeko Julia, June, Leyre, Lucia, Iñaki, Gaizka, Ane, Unai, Jone eta Aitana eta Iturburuko Peru, Jon, Maitane eta Malen saritu zituzten; lan didaktiko onena aurkeztu zutenak Itzioko Joseba, Unai eta Ihabar izan ziren; espezie ugari osatutako multzo irabazlea Urkizuko Izan, Markel eta Enekok osatu zuten; eta irabazleen zerrenda osatzen Amañako Jaione, Irati eta Maddik ere saria jaso zuten.

Saritutako argazkiak Portalean ikusgai


Barixakuan inauguratu zuten Portaleko erakusketa aretoan Indalezio Ojanguren XXV. Argazki Lehiaketako lan irabazleekin eta epaimahaiko kideek aukeratutako beste batzuekin osatutako erakusketa. Aurtengo edizioan honako sari hauek banatu dituzte: Ohorezko Saria Argazki Bilduma Onenari Miguel Planells Saurinak (Banyoles, Girona) eskuratu du; Indalezio Ojanguren Sariak, berriz, Aurelio Gómez (Santurtzi), Jorge Murgiondo (Bergara), Carles Verdu i Prats (Bartzelona) eta Lur Irisarri argazkilarien lanentzat izan dira; Euskal Herri Mailako Indalezio Ojanguren Sariak Luis Pontijas Condek (Astigarraga), Juan Ramón Llavori Ramonetek (Zumaia) eta Miguel Cabezas Centenok (Irun) eraman dituzte; eta Eibar mailako sariak Vicente Eizagaetxebarriak, Juan Antonio Palaciosen eta Ana Isabel Ugartek; 16 urtetik beherako artean Maialen Hitan izan da irabazlea. Sariak banatzeko ekitaldia erakusketaren inaugurazioan bertan egin zuten. Argazki erakusketa azaroaren 18ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.




Palaciosen saria jaso zuen aurten ere. LEIRE ITURBE

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ASIER Mallia Moreno, domekan bost urte bete zenduaz-eta. Eibarko famelixaren partez.




Zorionak, ARIANE, gure printzesa, astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, NEREA, hillaren 26xan bi urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, LEIRE Larrañaga Arrate, hillaren 24an urtetxua egin zenduan-eta. Famelixaren eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, ENARA, barixakuan zazpi urte bete zenduaz-eta. Etxeko *nocilla* goxuari patxo asko danon partez.




Zorionak, GAIZKA, astelehenian zazpi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Garazi eta lhintza txikixaren partez.



Zorionak, MIKEL eta GORKA Latorre Lasuen, zuen 3. eta 7. urtebetetzietan. Muxu haundi bat osaba eta izekoren partez.



Zorionak, KOLDO eta AMATXU. Aitaxoren eta aitxitxen partez.



Zorionak, JOSE eta VALENTINA, azaruaren 3an urrezko ezteiak egingo dozuez-eta. Etxekuen eta, batez be, Gorka eta Maitaneren partez.




hildakoak

- M^a Antonia González Vázquez. 89 urte. 2012-X-6.
- Luis Osoro Bastida. 76 urte. 2012-X-17.
- Eugenia Solaun Abín. 90 urte. 2012-X-19.
- Fernando Badiola Garramiola. 79 urte. 2012-X-22.
- Carmen Iburguren Unanue. 89 urte. 2012-X-23.
- Vidal Martínez Zudaire. 92 urte. 2012-X-25.
- Jose Ignacio Biteri Castrillo. 72 urte. 2012-X-25.
- Jose M^a Cornago García. 62 urte. 2012-X-25.
- Jose Manuel Llorente Duque. 55 urte. 2012-X-27.
- M^a Luisa Etxaniz San Martin. 82 urte. 2012-X-28.
- Miguel Castrillo Molleja. 87 urte. 2012-X-29.

jaiotakoak

- Rayan El Haddan. 2012-X-12.
- Mikel Colmenero Modrego. 2012-X-17.
- Sare Gamero Etxeberria. 2012-X-17.
- Libe Ortuoste Serna. 2012-X-18.
- Miren mazkiaran Osinalde. 2012-X-23.
- Saqlain Waris. 2012-X-24.
- Mikel Plaza Agirrebeña. 2012-X-27.



ANTZOKIAN

"Hotel Transylvania"

3an eta 4an (17.00)

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

1ean: 17.00, 20.00

2an: 22.30

3an: 17.00, 19.45, 22.30

4an: 17.00, 20.00

"Looper"

Zuzendaria: Rian Jhonson

(2 ARETOAN)

1ean: 17.00, 20.00

2an: 22.30

3an: 17.00, 19.45, 22.30

4an: 17.00, 20.00

5ean: 20.30 (1 aretoan)

"Una botella en el mar..."

Zuzendaria: Thierry Binisti

(ANTZOKIAN)

1ean: 17.00

2an: 22.30

3an: 19.45

4an: 20.00

"Lo imposible"

Zuzendaria: J. Ant. Bayona

(ANTZOKIAN)

1ean: 20.00

3an: 22.30

5ean: 20.30

"Argo"

Zuzendaria: Ben Affleck



EGUAZTENA 31

HALLOWEEN

17.30. Halloween kokojantzien lehiaketa eta desfilea umeentzat (3-12 urte). El Corte Inglés-ean.

EGUENA 1

ZAPOREEN AZOKA

19.00. Muskuiludastaketa, doan. Urkizun (Zaporeen Azokan).

BARIXAKUA 2

KONTZERTUA

20.30. Raw Kontzertua Express, Baionako The Enterprise eta Kuma No Motor taldeen kontzertua. Gaztetxean.

BERTSO JAIALDIA

22.15. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Sustrai Kolina, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Beñat Ugartetxea eta Angel M^a Peñagarikano. Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea. Euskal Birusak antolatuta, San Martin Kulturalaren barruan. Ermua Antzokia (Ermuan).

KONTZERTUA

00.00. Tinta Roja (Mutriku) taldearen kontzertua (Andrés Calamaroren bertsioak). Sarrera doan. Koskor tabernan.

ZAPATUA 3

KONTZERTUA

17.00. Holidays in Basque Country jaialdia: Bc Bombs, Rat-zinger, Kruders, 7 Balas, Delaired, Nafarroa 1512, In Your Face, Kaleko Urdangak eta Secuestro Express taldeen kontzertua. Gaztetxean.

ASTELEHENA 5

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

16.00. Sendabelarren Foroa: "Gaztainondoaren eta bere fruituen propietateak". Portalean.

HITZALDIA

19.30. "Barne krisia, kanpo krisia". Hizlaria: Lola Matesanz. Kulturalen.

LABURMETRAIAK

19.30. Asier Errasti Laburmetraia lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Coliseoan.

MARTITZENA 6

IKASTEN

10.00. "Arkitektura modernoa" hitzaldia, Cristina Ayusoren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKIA

19.00. "Eta Karmele?" antzezlan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen Illunabarran programaren barruan. Sarrera doan. Portalean (areto nagusian).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-erako entsegua Estanbulera doazenentzat. San Andres elizako lokaletan.

LABURMETRAIAK

19.30. Asier Errasti Laburmetraia lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Coliseoan.

EGUAZTENA 7

TURISMO-OSTALARIEN BILERA

17.30.- Turismoarekin eta gastronomiarekin zerikusia duten eragileentzat bilera, kluba eratzeko helburuaz. Debegesan.

BATZARRA

19.00. Bilduko batzar irekia. 2013ko aurrekontuari proposamenak egiteko. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-erako entsegua Estanbulera doazenentzat. Elizako lokaletan.

LABURMETRAIAK

19.30. Asier Errasti Laburmetraia lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Coliseoan.

HITZALDIA

20.00. "Corazón y factores de riesgo cardiovascular" hitzaldia, Luis Fernández Lázaro Eibarko Medikuntza Zentruko kardiologoaren eskutik. Portalean.

EGUENA 8

IKASTEN

10.00. "Umorea literaturan" hitzaldia, Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-erako entsegua (denentzat). San Andres elizako lokaletan.

LABURMETRAIAK

19.30. Asier Errasti Laburmetraia lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Coliseoan.

HOROSKOPOA

ARIES

Lepoa hobeto zaindu, ez tul horiek ez baitira seinale on-eta! Eguraldi honek zoratu egiten zaitu; baita gaixotu ere.

TAURUS

Jendea hobeto ezagutu beharko zenuke euren atzean gaizkiesaka ibili aurretik. Burua makurtzen hasi baino lehen.

GEMINI

Iritsi da asteburu luzea! Gogo handia zenukan, ezta? Orain atsedena hartu, pilak birkargatu eta, animo, borrokara.

CANCER

Zure umore aldaketek ez dute parekorik. Irrifartsu eta alai izatetik, bost minututan haserre betearen jartzera: ez da normala.

LEO

Zure buruan markatutako lerro hori zeharkatzea animatuko zara. Ausardia osoz, zehaztutako bidea jarraituko duzu.

VIRGO

Gau alaiek badakizu zer dakarkiten. Baina merezi izaten du askotan, ezta? Aprobetxatu: damutzea baino hobea da.

LIBRA

Kaletik zoazela, ez dituzu gabonetako argiak ikusi? Lasai, oraindik ez dituzte ipini. Baina hasi dira inausketekin!

SCORPIUS

Ezin duzu gehiago eta pikutara bidaliko zenuke, baina ez dakizu nola. Zergatik ez duzu probatzen gauzak aurpegiratuz?

SAGITTARIUS

Informatika ez dago zure aurka, nahiz eta berarekin oso ondo moldatu ez. Urte biko umea dirudizu arratoiarekin.

CAPRICORNIUS


Hurbileko batekin duzun harremanak txarrera egingo du. Barkatzen baduzu ere, zuen artekoa ez da berdina izango.

AQUARIUS

Ulertzekoa da eskiatzera joateko duzun gogo. Hotza etorri arren, oraindik goiz da elurretara joateko. Belarra jan!

PISCIS

Diru aldetik txarto zabilta. Larregi gastatzen duzu eta etxean muga ipini dizute. Lagunei eskatzen hasi beharko?



erakusketak

- ✓ **Azaroaren 11ra arte**
MIRIAM ISASI. "Bonbardaketa baten berreraikuntza" proiektuaren erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Azaroaren 12ra arte**
EXPOCAIXA. "Teknoiraultza: deskubritu teknologia konbergenteen aurrerapenak. *Untzagan.*
- ✓ **Azaroaren 18ra arte**
INDALEZIO OJANGUREN XXV. ARGAZKI LEHIAKETA. Saritutako lanen erakusketa. *Portalean.*

lehiaketak

- ✓ **Beldur Barik Lehiaketa**
Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urriaren 31ra arte**, www.beldurbarik.org.
- ✓ **San Andres Bertso Paper Lehiaketa**
Lanak aurkeztea eta informazioa: **Azaroaren 5era arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarterean).

ikastaroak

- ✓ **Ur-Sorospena**
Non eta noiz: **azaroaren 10etik abenduaren 2ra** arte, zapatu (09.00-13.00 eta 15.00-19.00) eta domeketan (09.00-13.00), Azpeitiako kiroldetxean eta DYako ordezkartizan (Urola kalean, Azpeitian). Informazioa: 943464622.

farmaziak

- ✓ **eguztena 31**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- ✓ **eguna 1**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 2**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **zapatua 3**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **domeka 4**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **astelehena 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **martitzena 6**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguztena 7**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **eguna 8**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **barixakua 9**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egutegia: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **EIBAR-MENDAROA.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDAROA-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.


tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

3			1			7	6
8			5	2			
		2	3		5		
	3						4
	2	7			8	1	
1						3	
		6		9	1		
			6	2			3
2	8				7		5

SUDOKUA



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Babes ofizialeko pisua salgai Amanñan. 70 m². Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.
- Pisua salgai Jardinetan. 2007ko eraikuntza. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. Garajearekin. Tel. 677-088320.
- Pisua salgai J.A. Mogelen. 76 m². 75.000 euro negoziagarriak + auzo errehabilitazio gastuak (zati bat subentzionatuta). Tel. 645-008496.
- Pisua alokatuko nuke Ermuan edo Eibarren. Tel. 698-433561.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Urgentea. Tel. 603-484877.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Ilogailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarko erdialdean. 2 logela, sukaldia-egongela eta komuna. Kalefakzioa. Jantzita. Tel. 659-757572.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala salgai Eibarko erdialdean. 22 m². Prezioa adosteko. Tel. 671-258740.
- Apartatzeko plaza salgai Txomon. Tel. 658-710898.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Sarbide erraza. Tel. 670-793312.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Autoa garbitzeko aukera eta komuna. 135 euro hilero. Tel. 670-931564.
- Garaje itxia alokagai Arrate-Biden. Garbitokiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko arratsaldez. Erreferentziak. Tel. 686-610074.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-258740.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 695-347162.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-182711.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko aste-buruetan. Tel. 699-094626.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean eta kale-atera ateratzeko. Tel. 688-812845.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 658-456861 eta 606-724484.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 686-052084.
- Sasoiko mutila eskaintzen da mendi, baso zein baserri inguruak garbitzeko. Tel. 699-690965.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldez. Tel. 627-052945.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-884104.
- Emakumea eskaintzen da sukaldelaguntzaile edo kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da sukaldelaguntzaile jarduteko, garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-176256.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-244331.
- Emakumea eskaintzen da sukaldelaguntzaile jarduteko, kamarera moduan, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko goizez. Tel. 943-127018.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-302653.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 618-050902.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 680-775138.
- Neska eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-162798. Maribel.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-560617. Onni.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna. Tel. 689-483646.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako orduka. Tel. 608-928766.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Gizonezkoa eskaintzen da taberna garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 645-555265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 645-557141.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta dendari jarduteko. Tel. 688-691544.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta etxeak garbitzeko. Tel. 619-507664.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta mekaniko jarduteko. Gidatzeko baimena. Tel. 603-066671.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-241910.

4.2. Langile bila

- Neska behar da Eibarko erdialdeko kafetegri batean. Curriculum-a bidali: tre@euskalnet.net

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 647-275374.
- LH, DBH eta Batxilergoko partikularrak ematen ditut: Matematikak, Ingelesa, Euskera, Ekonomia... Talde murritzuetan. Tel. 685-739709.
- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak LH eta DBH-rako klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.
- Kontabilitate eta Matematika klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Euskaraz eta gaztelaniaz. Tel. 943-127365.
- LH, DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen dira (Matematikak, Ingelesa, Euskera, Ekonomia). Talde murritzuetan. Tel. 685-739709.
- Ingeles irakaslea eskaintzen da goizez ingeles klaseak emateko. Tel. 628-061783.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Dibal Novaplus markako komertziorako balantza salgai. Tel. 676-753898.
- Vending makinak salgai: snack-eko bi eta janari beroko eta palomiten bana. la berriak. Tel. 619-547188.

6.2. Eman

- 90x200 eta 105x190eko somierrak aldatuko nituzke 1'35eko neurrikoagatik. Tel. 669-627090.

6.3. Bestelakoak

- Hauteskunde egunean EPAn base-ritar jantzitako ume baten argazkia aurkitu zuten. Batzoki taberna jaso dezakezue.

Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin

Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromezu Diploma daukate 507 establezimenduk, eta urte amaieran 800 izango dira. Arlo horretan, Praktika Egokien programaren helburua zerbitzuen kudeaketa hobetzea da. Aldi berean, bereziki negozio txikiei zuzenduriko programa da: Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiriak baino exijentzia maila baxuagoa du, baina epe luzearako konpromezu batekin. “Konpromisoa Kalitate Turistikoaren” ezaugarri-bereizgarriak formazio konpromisua errekonozitzen du, eta dedikazio eta zehaztasuna establezimenduen kudeaketan, kalitatearen hobekuntza planen bidez. Bere helburu nagusia da bezeroarekiko zerbitzuan hobekuntza etengabea izatea.



IDOIA ZENIKAZELAIA -ZELAI lande- “Diplomak norbera ezagutzera ematen laguntzen du”

- Zeintzuk izan ziren programa honetan parte hartzeko arrazoiak?

Programaren arduradunek deitu egin ziguten, programaren berri eman eta parte hartzeko interesa izango genuen galdetzeko. Proposamena hobekuntza modura ikusi genuen eta, horregatik, programarekin bat egitea erabaki genuen.

- Ze abantaila ekarri dizkizue diplomak?

Establezimenduaren prestigioari begiratu gero, jendeak diploma ikusi eta berehala identifikatu egiten du. Horrekin batera, gure gestiorako ere mesedegarria izan da.


- Zein arlotan? Zeintzuk izan dira hobekuntzak barne funtzionamenduan, kudeaketan eta azpiegitura gaietan?

Besteak beste, jendeari harrera egokia nola egin eta horrelako beste batzuk ikasi ditugu. Gainera, urtero errebisioa egingo dutenez, horrek hobekuntzari eustea dakar. Eta honetan beharrezkoak diren beste batzuekin hartuemanetan izatea ere beti da lagungarria, batzuek besteen esperientzietatik ikasteko aukera izaten dugulako.

- Bezeroaren poztasun mailan zer hobekuntzek eragin dute zuzenean, zure ustez?

Orohar, etortzen zaizkigun bezeroak pozik egoten dira hemen; hala esaten digute, behintzat.

- Nola animatuko zenituzke turismo arloan dihardutenak Kalitate Turistikoaren konpromezua bereizgarria ezartzeko?



Horrelakoetan parte hartzea beti lagungarria gertatzen dela esanez.

- Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nola-ko aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Lehenagotik ere eskaintzen ditugun guztietan kalitatea zaintzen ahalegintzen ginen, baina programarekin bat egin genuenetik erakundetik kontrol modukoa ere eramanen dute eta hona etortzen zaizkigun asko laguntzen digute, besteak beste hobetu beharrekoak zeintzuk diren zehazten.

- Ze abantaila eskeintzen dizkizue helmuga bereko beste batzuekin elkarlanean jarduteak?(jatetxeak, ostatuak, turismo aktiboko enpresak, interpretazio zentruak, turismo bulegoak...)?

Nahi eta nahi ez, bilera, ikastaro eta besteetara sarridan elkarrekin jotaten garenez, gure esperientziak partekatzeko aukera gehiago dauka gu eta geure artean informazioa zabaltzea ere errazagoa da.

- Basquetourren eta Jaurlari-tzaren aldetik, eskualdeko lehiakortasun teknikoaren bidez jasotako laguntza positiboki baloratuko al zenuke?

Duda barik, oso modu positiboan baloratzen dugu, marka ezaguna da

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetour-ek, enpresariei behar dituzten tresnak eta laguntzak ematen dizkiete euren erakundeak lehiakorragoak izan daitezen, ondorengo programei esker:

Praktika egokien programa: helburua enpresarioen “profesionalizazioa” hobetzea eta helmuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa diploma duten 507 establezimendu daude.

Q Kalitate Turistikoaren programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta gogobetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiria.


Bikaintasun ereduaren programa: erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

**EZARRI KALITATE
TURISTIKOAREKIN
KONPROMISOA
ZURE ESTABLEZIMENDUAN**

94 607 75 94
www.basquetour.net
info@basquetour.net



MONUMENTU ARTISTIKOA




LASA JATETXEA

*250 LAGUNENDAKO
JANGELA*



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaeta Jauregia

Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

www.restaurantelasa.es

BERGARA

